



**“ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN  
BARNE ARAUAK, ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTU GABEKO  
KONTRATAZIORAKO.**

## AURKIBIDEA

1. HELBURUA ETA ONESPENA
- 2 - KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEN INTERPRETAZIOA.
- 3 - KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEI LOTUTAKO KONTRATUAK.
- 4 - KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEK ERREGULATUTAKO KONTRATATZEKO PRINTZIPIO OROKORRAK.
- 5 – KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUETAN ERREGULATUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKAGARRI ZAIEN ERREGIMEN JURIDIKOA.
- 6 - KONTRATAZIO ORGANOA.
- 7 – ENPRESARIAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA.
  - 7.1 Kontratatzeke gaitasuna
  - 7.2 Kontratatzeke gaitasuna egiaztatzea.
  - 7.3 Operadore kualifikatuen zerrenda
- 8 – EXIJITU DAITEZKEEN BERMEAK
- 9 – KONTRATUAK PRESTATZEA
- 10 – KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA.
  - 10.1 Kontratuen mailak
  - 10.2 Publizitatea
  - 10.3 Esleitzeko prozedurak
  - 10.4 Kontratastaren hautaketa
  - 10.5 Kontratuen formalizazioa.
- 11 – ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK
- 12 – JURISDIKZIO ESKUDUNA

## **1.- HELBURUA ETA ONESPENA:**

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEA sektore publikoko partaidea da urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen (SPKL) 30/2007 Legearen 3.1.d) artikulua dioenaren arabera. Horrez gainera, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK esleitzeko ahalmena du SPKL-ko 3.3.b) artikulua kontuan hartuz.

Kontratazio alorreko barne arau hauen helburua ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEKO barne prozedurak erregulatzeko da erregulazio harmonizatuari lotu gabeko kontratuak esleitzeko, publizitate, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminazio eza printzipioak bermatuta geratzearren, baita ekonomikoki eskaintzarik onena aurkezten duenari kontratua esleitzeko ere, horrekin SPKL-ko 175.b) artikulua agintzen duena erabat betez.

Honako arau hauek 2009ko martxoaren 26an ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren bitartez onartu ziren, bere Aholkularitza Juridikoak aurrez txostena eginda. 2009ko martxoaren 27an sartuko dira indarrean eta data horren ondoren hasiko diren kontratazio espediente haietan aplikatuko dira.

Honako arau hauek derrigorrez bete beharrekoak dira ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN barnean. Era berean, beroien bitartez araututako kontratuen esleipen prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri beharko dira eta ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN kontratugile perfilean argitaratu.

## **2.- KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEN INTERPRETAZIOA**

Arau hauen ondorioetarako, iniciala maiuskulaz ageri duten terminoek bertan definituta daukaten esanahia izango dute eta arauetan definitu gabe dauden haiek, ondorio berarekin SPKL legean ezarrita duten esanahia edukiko dute.

Arauk kontuan hartuz SPKL legearen aginduren bat modu egokitan aplikatu behar denean edo osorik nahiz partzialki aplikagarri ez denean, SPKL legeko beste artikulua batzuek agindu horren inguruko aipamena egiten badute, Arau hauen arabera aplikagarri izan daitezkeenak, aipatu egokitzapen edo derogazioekin eginikoak direla ulertu beharko da.

Kontratuen batz besteko balioa SPKL-ko 76. artikuluan aurreikusitako arauen arabera kalkulatu da eta ez da Balio Erantsiaren Zerga sartuko.

Arau hauen 9. atalean aipatzen den zenbatekoa, SPKL legearen II. Eranskineko 17tik 27ra arteko kategorietan sartutako zerbitzuen kontratuei buruz, eta kopuru jakin batetik aurrera ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK eginiko kontratuak arautegi harmonizatuari lotuzat jotzen diren zenbatekoak, bere kasuan, Europar Batzordeak finkatutakoen arabera eguneratuta daudela ulertuko da SPKL legearen hamalagarren Xedapen Gehigarriak aipatzen duena kontuan hartuz.

### **3.- KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEI LOTUTAKO KONTRATUAK:**

Honako Arau hauek ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK egingo dituen kostubidezko kontratu guztiei aplikatuko zaizkie, beren izaera juridikoa edozein dela ere, hauei izan ezik:

- a) SPKL-ko 4. artikuluan aipatzen diren negozioak eta harreman juridikoak.
- b) SPKL-ko 13. artikulua eta bateragarriak kontuan hartuz arautegi harmonizatuari lotutako kontratuak, zeinaren esleipena SPKL-ko 174. artikuluan xedatutakoak zuzenduko duen.
- c) Arautegi sektorial aplikagarriak araututako edo espresuki salbuetsitako kontratu eta negozio haiek, izan ere aipatu arautegiak agintzen duenaren arabera esleituko dira.

### **4.- KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEK ERREGULATUTAKO KONTRATATZEKO PRINTZPIO OROKORRAK:**

KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauek aplikatzearen ondoriozko kontratuak SPKL-ko 1. artikuluan jasotzen diren printzipioek arautuko dituzte, eta haiek esleitzea, beti, publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara lotuta egongo da, SPKL-ko 175. artikuluekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioen betetzea bermatzeko, instrukzio hauen arabera ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK tramitatzen dituen kontratazio-prozeduretan, kontratatze organoen jardura, oro har, aipatutako printzipio horiek asebetetzera bideratuko dira.

Printzipio horiek betetzat hartuko dira KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauen hurrengo ataletan aurreikusitako arauak betetakoan, eta haiek aplikatzeko eta interpretatzeko honako jarduera-agindu hauek beteko dira:

a) Publizitate printzipioa betetzat ulertuko da, lizitatzailer potentzial ororen onerako hedabide edo dibulgazio bide egoki eta behar adina eskuragarri aplikatzen denean, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN kontratu alorreko informazioa emanez eta merkatua konpetentziari irekitzea ahalbidetuz.

b) Gardentasunaren printzipioa betetzat hartuko da, dagokion kontratua esleitu aurretik, balizko lizitatzailer orori lizitazioan parte-hartzeko interesa duela adierazteko aukera emanez informazio egokia zabaltzen edo dibulgatzen denean. Era berean, printzipio honek ekarriko duena da parte hartzaile guztiek jakin ahal izango dituztela aurrez kontratuari aplikatu beharreko arauak, hala nola aipatu arauak enpresa guztientzat modu berean aplikatu direnaren ziurtasuna edukiko dutela.

c) Beharrezko neurriak hartuko dira, KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetan aurreikusitakoaren arabera, balizko lizitatzailer prozesuan sartu eta parte hartzeko aukera emateko, kontratua abantaila ekonomiko onena duen eskaintzari esleitze aldera.

d) Konfidentzialtasunaren printzipioa errespetatuko da ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK beregain hartzen duenean enpresaburuek konfidentzialtasunez emandako informazioa ez zabaltzeko obligazioa, beti ere horretarako arrazoi justifikatuak daudenean, bereziki sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen alderdi konfidentzialak. Era berean, printzipio hau aplikatzeak exijituko duena da kontratistek errespetatu egin beharko dutela kontratua burutzerakoan eskura daukaten informazio haren izaera konfidentziala, pleguetan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo bere izaera propioagatik era horretan erabilia izan behar badu.

e) Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Neurri horiek honako hauek izango dira, gutxienez:

1. Kontratuen xedea diskriminaziorik gabe deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakin bat eta produktu bereziak aipatu gabe. Era berean, ez da aipatuko marka, patente, mota, jatorri edo produkzio jakinik. Salbuespena izango da, horrelako erreferentzia bat egoki justifikatzen bada edo "edo horren baliokidea" aipamenaz lagunduta badao.

2. Ez da ezarriko baldintzarik, Europar Batasuneko beste Estatukide batzuetako balizko lizitatzaileri dagokienez diskriminazio zuzena edo zeharkakoa dakarrenik.
3. Izangaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentu egiaztatzaileak aurkezteko, beste Estatukide batzuetatik datozen dokumentuen kasuan elkarri errekonozitzeko printzipioaren arabera onartu beharko dira tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diplomak.
4. Interesa erakusteko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira, beste Estatukide batzuetako enpresek ebaluazio egokia egin eta eskaintza bat aurkezteko aukera izan dezaten.
5. Esleipen-prozedura batean hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen diren kontratuetan, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK bermatu egingo du haiek guztiek kontratuari buruzko informazio bera daukatela baldintza beretan.

## **5.- KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUETAN ERREGULATUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKAGARRI ZAIEN ERREGIMEN JURIDIKOA.**

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK eginiko kontratuek, kasu orotan, kontratu pribatu izaera dute SPKL-ko 20.1 artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuz.

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN kontratazioa, KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUETAN arautua, edozein kasutan erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakundeentzat ezinbestez bete beharreko xedapen haien mende egongo da, SPKL legean agintzen dena kontuan hartuz. Bereziki, SPKL legearen I Liburuan (sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak) jasotzen diren arauak aplikatzea esan nahi du horrek, bere edukiagatik ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEARI aplikatzea tokatzen bazaio, Herri Administrazio bezala kalifikatzen ez den sektore publikoko parte den botere esleitzaila denez.

## **6.- KONTRATAZIO ORGANOAK:**

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN Estatuetan eta gainerako xedapen aplikagarrietan aurreikusitakoa kontuan hartuz erabakiko dira kasu bakoitzean kontratazio organoak, eta beste organo batzuei balioz eman ahal izango zaizkie haien ordezkariak edo ahalordeak.

## **7.– ENPRESARIAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA:**

### **7.1 Kontratazeko gaitasuna.**

KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetan erregulatutako kontratuak SPKL-ko 43. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzen zaizkien prezeptu bateragarriak betetzen dituzten pertsonekin soilik egin ahal izango dira. Zehazki, SPKL-ko 49.1 artikuluan zehaztuta dagoen bezala, kontratazeko debekuren batean sartuta dauden pertsonekin ezingo dira kontratuak egin, ezta beste enpresa batzuekin ere, gidatzen dituzten pertsonengatik edo beste gorabeherengatik debekua duten haien jarraipena dela susmatzen bada edo enpresa horien eraldaketa, fusio edo ondorioz sortuak direla susmatzen bada.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-betekizun minimoek kontratuaren xedera lotuta egon eta harekiko proportzionalak izan beharko dute.

### **7.2. Kontratazeko gaitasuna egiaztatzea.**

Sektore publikoko entitate guztiei aplikagarri zaizkien SPKL-ko xedapenen kalterik gabe, kontratazeko kaudimen ekonomiko eta finantzazioaren eta tekniko edo profesionalaren egiaztapena kasu bakoitzean dagokion lizitazioan erabakitzen denaren arabera egingo da, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta; eta SPKL-ko 64tik 68ra bitarteko artikuluetan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da, kontratazio-organoak egoki irizten badio.

Era berean, SPKL-ko 54.4 artikuluen arabera, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, hala dagokionean, enpresaburuaren kaudimena dagokion sailkapenaren bidez egiaztatu dadin eskatu ahal izango da.

Enpresaburuak eduki behar dituen kaudimen-betekizun minimoak eta haiek egiaztatzeko eskatutako dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren pleguan zehaztuko, KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauen arabera eskatu ahal izanez gero.

## **8.– EXIJITU DAITEZKEEN BERMEAK:**

Kontratuaren gorabeherak eta ezaugarriak zein diren kontuan hartuz, kontratazio-organoak eskatu ahal izango die lizitatzailaiei edo izangaiei berme bat eman dezatela, haien eskaintzei esleipenera arte eutsi diezaieten, eta berme bat ere eskatu ahal izango zaio esleipendunari, prestazioa behar bezala gauzatuko dela ziurtatzeko.

Berme horren zenbatekoa kasu bakoitzean ezarriko da, kontratuaren gorabeherak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Eskatzen diren bermeak SPKL-ko 84. artikuluan aurreikusitako moduren batean aurkeztu ahal izango dira.

## **9.– KONTRATUAK PRESTATZEA:**

SPKL-ko II. Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartuta dauden zerbitzuen kontratuak prestatzerakoan, 206.000 euroko edo handiagoko zenbatekoarekin, SPKL-ko 121.1 artikuluan eta xedapen bateragarrietan aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauek aipagai dituzten gainerako kontratuetan plegu bat egin beharko da bere zenbatekoa 50.000 eurokoa baino handiagoa denean, SPKL-ko 121.1 artikuluan eta xedapen bateragarrietan adierazten den edukiarekin, eta era berean aplikagarri izango da SPKL-ko 104. artikuluan agintzen dena.

Horrez gainera, KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauekin bateragarri diren atalen arabera kasuan kasu bidezkoa den informazioa jasoko du pleguak.

Kontuan hartuta SPKL-ko 121.1 artikulua edukia eta KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEN atal bateragarriak, pleguetan ezinbestez jasoko dira ondorengo aipamenak, kontratazio organoek egokitzen jotzen dituzten aipamen gehigarrien kalterik gabe:

- a) Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak.
- b) Aldagaiak onartzeko erregimena.
- c) Eskaintzak jasotzeko modalitateak.
- d) Lizitazioan parte hartzeko interesa duten enpresariei exijigarri zaizkien ahalmen eta kaudimen baldintza minimoak.
- e) Kontratazio organoaren ustez egokitzen jotzen denean, kaudimenaren irizpide objektiboak, zeinen arabera aukeratuko diren proposamenak aurkeztera gonbidatuko direnak, baita eskaintza aurkeztera gonbidatuko diren gehienezko hautagai kopurua ere, hiru baino gutxiago ezingo baitu izan.
- f) Kontratua esleituko zaion ekonomikoki eskaintzarik onena dena zehazteko ebaluatuko diren irizpide teknikoak eta ekonomikoak.
- g) Balorazio organo bat osatzea, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko duena, eskaintzak baloratuko dituen eta esleitzeko proposamen bat egingo duena, kontratazio organoak beharrezko ikusten duenean.
- h) Aukeratutako lizitatuak edo lizitatuak kasuan kasu ordaindu beharko dituen/dituzten bermeak.



i) SPKL-ko 104. artikulua araberako kasu bidezkoa den informazioa lan kontratuen subrogazio baldintzei buruz.

j) Kasu kasu, kontratatari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren zabalpen objektiboa eta denborazkoa.

k) Lizitatuak informazio gehigarria lortzeko kasu kasu aplikagarri izan daitezkeen epeak eta eskaintzak aurkezteko edo, bere kasu, parte hartzeko eskariak egiteko epeak, hala nola aurkeztutako dokumentazioan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko epeak, kontratazio organoak egoki baderitzo.

l) Kontratua formalizatzeko epea, hamar egun naturaleko epearen desberdina den bat ezarri nahi bada.

m) KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetako 10.3 atalean zehaztutako 3. mailako kontratuetan kontratazio organoak aukeratutako esleipen prozeduraren justifikazioa, KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetan aurreikusi bezala.

## **10. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA:**

### **10.1 Kontratuen mailak.**

KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitza esleitzeko prozedura eta baldintza aplikagarriak ezartzeko ondorengo mailak bereizten dira (aurrerantzean, bakarra denean "**Maila**", eta multzoa denean "**Mailak**").

a) **1 maila:** Maila honi lotuta daude:

- Obra kontratuak, zeinen batz besteko balioa 50.000 euro baino txikiagoa den.
- Gainerako kontratuak, zeinen batz besteko balioa 18.000 euro baino txikiagoa den.

b) **2 maila:** batz besteko balioa ondorengo artean kokatuta daukaten kontratuak:  
- 50.000 € eta 1.000.000 €, obretako kontratuak direnean.

- 18.000 € eta 100.000 € gainerako kontratuetan.

c) **3. maila.** Batz besteko balioa aurreko 2. mailakoena baino handiagoa duten, eta erregulazio harmonizatuari lotu gabeko kontratuak.

## **10.2. Publizitatea:**

Zein kontratu maila den kontuan hartu gabe, bere batz besteko balioa 50.000 euro baino handiagoa denean, lizitazioari buruzko informazioa ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN kontratugilearen perfilean sartu behar da. Hala ere, hedapenerako bide gehigarriak erabili ahal izango dira beharrezko ikusiko balitz kontratuaren gorabeherak eta ezaugarriak kontuan hartuta, adibidez aldizkari ofizialetara, tokiko argitalpenetara edo Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera joz, mugarik gabe. Era berean, beharrezko ikusiko balitz, urte bakoitzean edo urte anitzeko denboraldirako esleitzeko asmoa dauden kontratuei buruzko iragarkiak aurrez zabaldu ahal izango dira.

Lizitazio iragarkiak ondorengo informazioa edukiko du:

a) Kontratuaren oinarritzko xehetasunen deskribapen labur bat.

b) Kontratua esleitzeko prozedura, eskaintzak aurkezteko epea adieraziz (prozedura irekian) edo parte hartzeko eskariena (prozedura negoziatu eta mugatuetan), baita enprekin negoziatu behar izango diren alderdi ekonomiko eta teknikoak ere (prozedura negoziatuan).

c) Kontratazio organoaren ustez egokitzen jotzen denean, kaudimenaren irizpide objektiboak, zeinen arabera aukeraturiko diren proposamenak aurkeztera gonbidaturiko direnak, balizko kasu honetan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea adieraziko delarik.

d) ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREKIN harremanetan jartzeko gonbidapena, informazio gehigarria lortzeko helburuarekin.

Edozein kasutan, kontratuaren gorabeherak eta ezaugarriek hala aholkatzen badute, iragarkiaren edukia zabaldu ahal izango da edo kontratugilearen perfilean informazio gehigarria erantsi.

200.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuak direnean eta 60.000 euro baino gutxiagoko gainerako kontratuetan ez da beharrezkoa izango lizitazio iragarkia eta dagokion plegua argitaratzea kontratugilearen perfilean, eta aski izango da perfil horretan orokorki adieraztea egin asmo diren kontratuak eta horretarako aurreikusten diren datak zein izango diren.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren kalterik gabe, publizitatea saihestu ahal izango da SPKL legearen 154 artikulutik 159ra aipatzen den prozedura negoziatua aplikatu behar deneko balizko kasuetan, aipatu lege testuaren 161 artikulua adierazten duen bezala, publizitaterik egin beharrik ez dutenean.

### **10.3 Esleitzeko prozedurak:**

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK kontratuak esleituko ditu, gutxienez, maila bakoitzarentzat jarraian adierazten diren bermeak errespetatuz.

#### **a) 1 mailako kontratuak: zuzeneko esleipena.**

1 Mailako kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna eduki eta prestazioa gauzatzeko behar den gaitasun profesionala daukan edozein enpresabururi, eskaintza aurkezteko eskaera enpresaburu bakar bati eginda eskaera-gutun baten bidez.

Edozein kasutan, kontratuaren gorabeherek eta ezaugarrien arabera, 1 mailako kontratuei aplikatu ahal izango zaizkie goragoko edozein mailentzat aurreikusitako esleipen arauak.

#### **b) 2 mailako kontratuak: prozedura negoziatua.**

2 mailako kontratuak modu negoziatuan esleituko dira, ondorengo arauak betez:

1.- Ahal den guztietan, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK eskaintza aurkeztea eskatuko die, gutxienez, kontratua burutzeko gai diren hiru enpresari. Eskaintza aurkeztera gonbidatutako enpresen artean, horretarako aurreikusi den epean lizitazioan parte hartzeko interesa agertu duten haiek sartuko dira. Hala ere, kontratazio organoak bidezkotzat jotzen badu, interesa agertu duten haien artean proposamenak aurkeztera gonbidatuko diren hautagaiak aukeratzeko kaudimen irizpide objektiboak ezarri ahal izango ditu, eta era berean gonbidapena luzatuko zaien hautagaien gehieneko kopuru bat ere finkatu ahal izango da, hiru baino gutxiago ezingo dutelarik izan. Irizpide objektibo hauek, kontratuaren iragarkian adierazi ahal izango direlarik, gutxienez dagokion pleguan jaso beharko dira.

2.- Kontratazio organoak balorazio organo bat osatzeko erabakia hartu ahal izango du beharrezko ikusten duenean, kontratuaren konplexutasun teknikoagatik edo gorabehera edo ezaugarri bereziak dituelako, eta pleguan hala adieraziko da. Aipatu organoa arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeaz, eskaintzak baloratzeaz eta kontratazio organoari esleitzeko proposamen bat igortzeaz.

3.- ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK kontratuaren edozein alderdi negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin, kasuan kasu dagokion pleguan ezartzen dena kontuan hartuz, eta negoziazioan zehar zaindu beharko du lizitatzaille guztiek tratu bera jaso dezaten, eta ez du modu diskriminatorioan informazioa erraztuko.

4.- Kontratua esleituko zaio, edozein kasutan, eskaintza ekonomiko onena egiten duenari, Pleguan ezarrita dauden irizpide ekonomiko eta teknikoak kontuan hartuz.

5.- ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK agirietan jasoko ditu eginiko gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta onartu edo baztertu izanaren arrazoiak.

**c) 3 mailako kontratuak: prozedura irekiak, mugatuak, negoziatuak edo elkarrizketa lehiakorrekoak.**

Kontratazio organoak, kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuz, pleguan justifikatu beharko du aukeratu duen esleipen prozedura, ondorengo paragrafoetan aurreikusitako arauak jarraituz.

Kontratuen maila honetan esleitzeko ohiko prozedura negoziatua izango da, eta honi 2. mailako kontratuentzat aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkio.

Goian adierazitakoaz gain, prozedura irekia edo mugatua aplikatzea erabaki ahal izango da, ondorengo kasuetan:

(a) Kontratu beharreko prestazioak behar besteko zehaztasunez definituta daudenean, berorri buruzko alderdi tekniko edo ekonomikorik negoziatu beharrik ez dagoenean.

(b) Erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen kopuruetara hurbiltzen delako eta garrantzi ekonomikoa dutelako kontratazio organoak uste badu prozedura irekiak edo mugatuak hobeto betetzen dituela KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetako 3. atalean zehazten diren printzipioak.

Prozedura irekia edo mugatua aplikatzen den balizko kasu haietan, SPKL legeko 141 artikulutik 152 arteko aurreikuspenak izango dira aplikagarri ondorengo egokitzapenekin:

1) Ez dira aplikagarri izango lizitatuzaileei eman behar zaien informaziorako epeak, parte hartzeko proposamenak aurkezteko epeak edo eskariak egiteari buruzkoak, eta horien ordez iragarkian zehazten diren edo, bere kasuan, pleguan zehazten diren epeak erabiliko dira. Erabakitzen diren epeak, beti, egokiak izango dira, balizko lizitatuzaile orori aukera emateko, Europar Batasuneko beste Estatukide batzuetako enpresak barne, ebaluazio egoki bat egin eta eskaintza bat aurkez dezaten.

2) Kontratazio organoak balorazio organo bat osatzeko erabakia hartu ahal izango du beharrezko ikusten duenean, kontratuaren konplexutasun teknikoagatik edo gorabehera edo ezaugarri bereziak dituelako, eta pleguan hala adieraziko da. Aipatu organoa arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeaz, eskaintzak baloratzeaz eta kontratazio organoari esleitzeko proposamen bat igortzeaz, eta SPKL legearen 134.2 artikuluan aurreikusten dena ez da aplikagarri izango adituen komiteak esku hartzeari buruz.

SPKL legeko 164. artikuluan jasotzen diren balizko kasuak ematen direnean, elkarrizketa lehiakorraren prozedura aplikatzea erabaki ahal izango da eta SPKL legeko 163 artikulutik 167 arte adierazten denaren arabera zuzenduko da, prozedura ireki edo mugatuen kasuan aurreko paragrafoetan aipatu diren egokitzapen berberekin.

#### **10.4 Kontratataren hautaketa.**

Aurreko kasuetako edozeinetan, kontratataren hautaketa jakinaraziko zaie prozeduran parte hartzen dutenei eta ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAREN kontratugilearen perfilean argitaratuko da, kontratuaren gorabehera eta ezaugarriengatik bestelakorik erabakitzen ez bada.

#### **10.5 Kontratuen formalizazioa.**

Bere kasuan dagokion pleguan jasota ez badaude behintzat, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK egingo dituen kontratuak KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUEI lotuta badaude, ezinbestez aipamen hauek egin beharko dituzte, SPKL legearen 26. artikulua kontuan hartuz:

(a) Aldeen identifikazioa.

(b) Kontratua sinatzeko sinatzaileek gaitasuna dutela egiaztatzea.

(c) Kontratuaren xedearen definizioa.

(d) Kontratuari aplikagarri zaion legeriaren aipamena.

(e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrendatzea. Kontratuan hala adierazten bada, zerrendatze horrek hierarkizatua egon ahal izango du, aldeek adostutako lehenetasun-ordenaren arabera antolatuz. Suposamendu horretan, eta ageriko hutsegitea dagoenean izan ezik, hitzartutako ordena erabiliko da dagokion prebalentzia erabakitzeko zenbait dokumenturen artean kontraesanik gertatuz gero.

(f) Prezio zehatza edo hura erabakitzeko era.

(g) Kontratuaren iraupena edo gauzaten hasteko eta amaitzeko kalkulaturako datak, eta, era berean, aurreikusita baleude, luzapenena.

(h) Prestazioak hartzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.

(i) Ordaintzeko baldintzak.

(j) Amaiera bidezkoa den balizko kasuak.

(k) Aurrekontu kreditua edo kontabilitate programa edo izenpea, prezioa ordainduko duenaren bizkar, bere kasuan.

(l) Hala dagokionean, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren eduki objektiboa eta denborazkoa.

Oro har, kontratista hautatu ondorengo hamar egun naturaleko gehienezko epean egingo da kontratuaren formalizazioa, betiere pleguetan edo dagozkion eskaintzetan beste epe bat erabaki ez bada.

ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEA kontratuarekin ados dagoela adieraziko du kontratua formalizatuz, eta horrekin kontratua burutua dagoela ulertuko da.

## **11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK:**

Bere kontratuak arrazionalizatu eta antolatzeko, ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A. (ZAISA) ELKARTE SUSTATZAILEAK enkante elektronikoak egin ahal izango ditu, akordio markoak burutu, sistema dinamikoak bideratu edo obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa zentralizatu zerbitzuetan edo beste elkarte edo erakundeetan, SPKL-ko 132 artikulua eta 178tik 191 arteko artikuluen arabera, eta kasu bakoitzean aplikagarri izango dira KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauetatik egiten diren moldaketak.

## **12. JURISDIKZIO ESKUDUNA:**

KONTRATAZIORAKO BARNE ARAU hauek aipatzen dituzten kontratuak prestatu, esleitu, ondorioztatu, bete eta amaitzeari buruzko arazo gatazkatsuak konpontzeko eskuduntza duen jurisdikzio arloa, jurisdikzio zibilaren arloa izango da.

\* \* \*